

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua

**DEUSTUKO IKASTOLA
IPI**

Aurkibidea

1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa	3
2. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak	5
3. Helburuak eta lehentasunak	8
4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak	11
4.1. Curriculumaren esparrua	
<i>4.1.1. Oinarri metodologikoak</i>	11
<i>4.1.2. Hizkuntza proiektua</i>	12
5. Batzordeak eta dokumentoak	13

1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa

↳ Ikastetxearen testuinguruaren eta ibilbidearen azterketa.

Deustuko ikastola, izenak adierazten duen moduan, Bilboko Deustua auzoan kokatuta dago. Auzo horrek 22.000 biztanle inguru ditu. Bertako biztanleen arteko langile gehienek zerbitzu sektorean lan egiten dute. Hizkuntzari dagokionez deustuarren %50 erdaldunak dira, %20 ia-euskaldunak, eta gainontzeko %30-a euskaldunak.

Deustuak, inguruko auzo eta herriekin komunikazio arina eta ugaria du: metroaren A gunean kokatuta dago (Bilboko hirigunetik berehala) eta zenbait autobus-linea ere badaude Deustutik pasatu edo ateratzen direnak. Deustuak, zenbait kultura eta kirol zerbitzu ditu: udal liburutegia, ludoteka, umeentzako eta gazteentzako guneak, elkarten lanerako aretoak, KZ gunea, tailerrak, udal kiroldegia, futbol zelaia... Honi guztioni, kultura inguruan lan egiten duten taldeak gehitu behar zaizkio: aisialdi taldeak, kultur taldeak, kirol taldeak eta zenbait elkarte, haien artean euskaltzaleak ere.

Osasun arloan nahiko ondo hornituta dago auzoa: kontsulta medikoak, espezialitate guztiak dituen anbulatorioa eta goi mailako erietxe pribatua (Zorrotzaurre) baitaude.

Irakaskuntzari dagokionez, Deustuko auzoan kokatuta dauden ikastetxeak era askotakoak dira: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten bi ikastetxe publiko (*Deustu HLHI*n Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eta *Deustuko Ikastolan* Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), hiru itunpeko ikastetxe (*La Salle*, *Salesianos* eta *Ibaigane*), batxilergoko institutu bat (*Botikazar BHI*), unibertsitate pribatu bat (*Deustuko Unibertsitatea*) eta Hizkuntz Eskola Ofiziala. Hauetaz gain zenbait akademia daude (British Council, Mister Jam, Kinema, IMVAL, INUTEC, eta gehiago).

Ikastola, Deustuko hirigunean bertan kokatuta dago eta Deustuko San Pedroko (Doneperriagako) eta Erriberako (Deustuibarrako) ikasleak hartzen ditu. Erriberako ikasleek autobus zerbitzua dute, eta gainontzeko ikasle gehienak oinez etortzen dira. Salbuespenak ere badaude: metroz, autobusez edo kotxez etortzen direnak inguruko auzoetatik.

↳ Hezkuntza beharren azterketa, ikasleen ikaskuntza-emaitzetan oinarriturik.

Ikastolara datozen umeen familien bizitza-maila ertaina da eta gurasoen ikasketa-mailaren batezbestekoa altua. ISEI-IVEIk emandako azken datuen arabera ikastolako familien gizarte, ekonomia eta kultura mailak altuak dira.

Familia-hizkuntzari dagokionez etxeetan egiten den euskararen erabilera %35ekoa da, gutxi gorabehera.

2. Printzipioak, baloreak eta nortasun-ezaugarriak

IKASTOLAREN HISTORIA

50 urte pasa dira jadanik Deustuko Ikastolak bere ibilbidea hasi zuenetik. Eskolak 1963an 12 ume baino gehiago ez zituen etxebizitza batean hasi ziren eta gaur eguneko ikastolak 720 ikasle inguru ditu. Aldaketa handia, benetan!

Deustuko ikastola 1963an guraso talde baten ekimenez sortu zen etxebizitza batean eta ondoren Deustuko San Pedro parrokiako lokal txiki batera aldatu zen. 1967-1968 ikasturtean gurasoek beste lokal bat prestatu zuten eskolaurrea hasteko. Garai berean, pasiotarren San Felizisimo parrokiak utzitako areto batean haurtzaindegi euskalduna jarri zen. 1969-1970 ikasturtean ikastetxe biak elkartu ziren San Felizisimo parrokiaren sotoetan. Honela sortutako ikastetxea “*Colegio Parroquial de la Pasión del Señor*” izenarekin legezatu zen, eta ikastetxe horren lehen barne araudia egin zen.

Lehenengo promozioak, ikastolako zazpi ikaslek, 1975 urtean bukatu zituen OHOk ikasketak.

1976-1977 ikasturtean lehenengo laguntza ofizialak jaso ziren. Ikastetxea kudeatzeko kooperatiba sistema aukeratu zen eta zentroak “*Deustuko Ikastola S.Coop.*” izena hartu zuen. Orduz geroztik, *Bizkaiko Ikastolen Elkarteko* kide izan zen sare publikoan murgildu arte.

1986an, erakunde publikoekin izandako harremanen ondorioz, ikastola gaur egungo eraikinera aldatu zen *Deustu HLHI*. ikastetxe publikoarekin eraikina konpartituz.

Sare publikoan sartzeko aukera eman zenean, *Ikastolako Asanblada* erabaki horren alde agertu zen, eta 1993-1994 ikasturtetik aurrera Deustuko Ikastola publikoa da.

Hezkuntza Sailak hezkuntza-mapa berria ezarri zuenean *Ikastola Publiko Integrala* bihurtu zuen Haur Hezkuntza, Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntza irakasten dituelako

1996-1997 ikasturtean *Deustu HLHI D* ereduko ikasle eta irakasleak ikastolan integratu ziren. Espazio eza arazo larria bihurtu zenez gero 2002-2003 ikasturtean ikasmaita bakoitzean hiru talde izatetik bi izatera pasatzea erabaki zuen Bizkaiko Ordezkaritzak.

2004-2005 ikasturtean ikastolako *Eskola Kontseilua* eratu zen: bertan, guraso, irakasle, ikasle, irakasle ez diren langileak eta Bilboko udala ordezkatuta daude. Ordura arte *Asanblada Orokorra* izan zen organo gorena.

Oraindik gure historiak aurrera jarraitzen du.

NORTZUK GARA

Deustuko Ikastola *Ikastetxe Publiko Integrala* da. Honek zera esan nahi du: Ikastetxe berak hezkuntzan beharrezkoak diren hiru etapak hartzen dituela (Haur Hezkuntza, Lehen hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza).

Hiru hezkuntza etapak zentro berean izateak baditu zenbait abantaila: ikastetxeak ikasleen jarraipena 14 urtean zehar egiten du —2 urteko gelan daudenetik DBHko 4. mailan 16 urte dituzten arte—. Ibilbide luze horrek gurasoekin harremanak estuagoak izatea bideratzen du. Etapa ezberdinetako ikasleen arteko proiektuak gauzatzeko aukera ematen du. Pedagogi Batzordeak etapen arteko koordinazioa egin dezake.

Zailtasun batzuk ere badaude: egutegiak eta ordutegiak bateragarri egitea, espazioak banatzea, eta halakoak.

Deustuko Ikastolak bi lerro ditu Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, DBH-n berriz hiru dira lerroak. Gaur egun 719 ikasle ditugu: 177 Haur Hezkuntzan, 294 Lehen Hezkuntzan eta 247 Bigarren Hezkuntzan.

Deustuko Ikastola euskalduna, demokratikoa, ingurunean errotua, hezkidetzarekin konprometitua, desberdintasunaren orekatzailea eta aniztasunaren integratzailea da.

Euskalduna: Ikastola euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen, normalizazio eta sustapenarekin guztiz konprometituta dago. Euskal Herriko izaera, nortasuna eta kultur berezitasunak bereziki zaindu eta bultzatuko dira Deustuko Ikastolan.

Demokratikoa: Deustuko Ikastolaren sorreratik estamentu guztien parte-hartzea oso garrantzitsua izan da, beraz, komunitate osoaren parte-hartzea eta elkarrekin lan egitea bultzatuko da, parekidetasuna eta guztion eskubideak bermatuz.

Ingurunean errotua: aurretik aipatzen den moduan, auzoan kokatzen da Ikastola, beraz, bertan ditugu gure sustraiak eta eguneroko erreferentziak. Deustuko ohiturak, tradizioak eta kezak kontuan hartuko ditugu eta gure helburuekin bat datozen ekintza, mugimendu eta jaietan parte hartzen saiatuko gara.

Hezkidetzarekin konprometitua: gizakiok batak bestearengandik asko ikasi ahal dugu. Nesken eta mutilen arteko harremanak hezkuntzako inguruan aberasgarriak dira oso, eta Ikastolaren lana inguru egokia eskaintzea izango da.

Sexuen arteko berdintasuna garatu nahi dugu, eta honen asmoarekin hizkuntza sexistak eta genero estereotipoak baztertzen saiatuko gara.

Desberdintasunaren orekatzailea: maila kultural, sozial eta ekonomiko desberdinetako gizakiei aukera berdinak eskainiko dizkio Deustuko Ikastolak inolako diskriminaziorik gabe, proposatutako helburuak lortzeko. Horretarako behar diren neurriak martxan jarriko dira igartzen diren desorekak konpentsatzeko.

Aniztasunaren integratzailea: ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso desberdinak errespetatuko dira, elkarbizitzaren kontra ez doazen heinean.

Deustuko Ikastola akonfesionala da. Dena dela, gurasoen aldetik eskaera egonez gero, erlijioa emateko aukera egongo da.

3.1. Helburuak

Deustuko Ikastolak hezkuntza integrala eskaini nahi du, eta ez emaitzetan oinarrituta bakarrik, beraz, ikasleen garapen fisikoa, intelektuala, afektiboa eta soziala kontuan izango ditugu.

Ondoren azaltzen diren helburuak Deustuko Ikastola osatzen duten guztientzat zuzenduta daude: ikasleak, irakasleak, gurasoak eta langileak.

Helburuak:

- 1 **helburuaren formulazioa**
- ▶ Gure ikasleak DBH amaitzean euskaldun oso izatea (gaitasun guztiak normaltasunez garatzeko gai izatea eta garatzea)

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Euskalduna

- 2 **helburuaren formulazioa**
- ▶ Euskararen normalizazio prozesuan gure ikasleek jarrera aktiboa izatea, hau da, euskararen defentsan konprometituak.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Euskalduna

- 3 **helburuaren formulazioa**
- ▶ Ikastolako barne funtzionamendua euskaraz izatea.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Euskalduna

- 4 **helburuaren formulazioa**
- ▶ Ikastolako kanpo harremanak euskaraz garatzea eta ezin denean, gutxienez, elebidun izatea.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Euskalduna

- 5 helburuaren formulazioa
- ▶ -Gure ikasleek gure herriko eta kulturako berezitasunak ezagutzea, sentitzea eta preziatzea.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Euskaldun. Ingurunean errotua

a

- 6 helburuaren formulazioa
- ▶ Ikastolako funtzionamenduan eskola komunitate osoaren parte hartzea lortzea, eztabaida eta adostasunaren dinamikan oinarrituta.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Demokratikoa

- 7 helburuaren formulazioa
- ▶ -Gure ikasleek balore demokratikoak barneratzea: elkarrizketa, errespetua, partaidetza aktiboa, jarrera kritikoa, elkartasuna...

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Demokratikoa

- 8 helburuaren formulazioa
- ▶ Auzoko taldeekin, euskara alorrean eta umeekin lan egiten dutenekin bereziki harreman iraunkorra edukitzea eta kooperatzea.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Euskara. Ingurunean errotua

- 9 helburuaren formulazioa
- ▶ . Genero estereotipoak gainditzea eta aukera berdintasuna bultzatzea.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Hezkidetzarekin konprometitua. Desberdintasunaren orekatzailea

10

helburuaren formulazioa

- ▶ Portaera sexisten aurkako jarrera aktiboa izatea.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Hezkidetzarekin konprometitua. Desberdintasunaren orekatzailea

11

helburuaren formulazioa

- ▶ Pertsonen dibertsitatea (fisikoa, gaitasunezkoa, sexua, arraza, ekonomikoa..) eta ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso desberdinak errespetatzea.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Aniztasunaren integratzailea

12

helburuaren formulazioa

- ▶ Ikasleen autonomia eta autoestima lantzea.

identifikatu zein printzipio, balio eta nortasun ezaugarri erantzuten dien

Desberdintasun orekatzailea. Aniztasunaren integratzailea. Hezkidetzarekin konprometitua.

4.1. Curriculumaren esparrua

↳ Metodologia-aukerak

Aurreko atalean proposatutako helburuak lortzeko zenbait oinarri metodologikoak eta pedagogi estrategiak gogoan hartuko ditugu.

Oinarri metodologikoak:

- Indibidualizazioa, aniztasunaren trataeran batez ere.
- Globalizazioa.
- Jarduera (Aktiboa). Umeen interesetatik abiatuta landuko dira ekintza guztiak.
- Sormena (Eraikitzailea). Gure ikastolak ikasleen sormena, esperimentazioa eta partaidetza praktikoa garatzen dituzten proiektuei eta ekintzei arreta eta indar berezia emango die.

Pedagogi estrategiak:

- Euskara da gure hizkuntza eta baita gure kulturaren ardatza ere; beraz, ikasketa hizkuntza izateaz gain harremanerako hizkuntza da.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak garrantzi handia du. Irakasleen zeregina, ikasleen jakin-mina piztea eta gai guztietako zaletasuna bultzatzea da. Beste alde batetik ikasleak ikasten duenak bere bizitzarako baliagarria izan behar du.
- Aurrekoarekin lotuta, funtsezkoa izango da irakasle taldeak sortzea eta talde moduan lan egitea.
- Pertsonen garapen integrala lortzeko baloratuak sentitu beharko dira gure ikasleak. Ikastola pertsona bakoitzaren egoeratik abiatuko da bere garapena eta heldutasuna lortzeko.
- Ikaslea bere osotasunean hartuz, Ikastolak bere aisialdia eta eskolaz kanpoko harremanak garatzeko behar diren eskolaz kanpoko ekintzak bultzatuko ditu.
- Ikastola anitza da, beraz, gizarte demokratiko bati dagozkion baloreak bultzatuko ditu (parte-hartzea, elkartasuna, errespetua, elkarrizketa giroa...)
- Pedagogi berrikuntzarako jarrera baikorra azalduko du Deustuko Ikastolak.
- IKTetarako prestakuntza eta erabilpena funtsezkoak dira bizi garen garai eta teknikei egokitzeko.
- Ikastola inguruan txertatuta dago, eta bere ahalegina gizarteari irekitako errealitate bezala agertzea izango da.

- Ikastola ikerketa gunea da, non metodologia desberdinetan oinarritutako pentsamendu zientifikoa lantzen den.
- Elkarbizitzarako beharrezkoa da harreman arauak zaintzea, norberaren ideiak defendatuz, jarrera tolerantia bultzatuz, eta garbi izanez besteekiko errespetua norberaren nahien gainetik dagoela. (Elkarbizitza, Bizikidetzak)
- Taldeko lana eta lan kooperatiboa bultzatuko ditugu, baita ere adin desberdinetako ikasleen arteko elkar trukaketak.
- Ekintza osagarriek balio handia dute

HIZKUNTZA PROIEKTUA

Hau guztiau bermatzeko oinarri batzuk bete beharko dira:

- Ikastolan lanean diharduten langile guztiak eta bereziki ikasleekin harreman zuzena dutenak euskaldunak izatea (irakasleak, atezainak, idazkaritzako, jantokiko eta autobusetako langileak, zaintzaileak, laguntzaileak eta abar).
- Ikastolan egiten diren ikasleekiko jarduera guztiak euskaraz izatea, bai eskolakoak, bai osagarriak, baita eskolaz kanpoko ekintzak ere. (Gainontzeko hizkuntzetako irakasgaietan izan ezik).
- Ikastolan eskaintzen diren zerbitzuak (jantokia, haurtzaindegia, psikologoa, osasungintza) ere euskaraz izango dira.
- Euskararen normalizazioan aurreratzeko Deustuko Ikastolak hainbat ekintza bultzatzea:
 - HNPrez parte izanez.
 - “Euskaraz Bizi” moduko kanpainetan parte hartuz.
 - Ikastolako barne-agiri guztiak euskara hutsez edo elebidunak eginez.
 - Ahal diren erakunde guztiak euskara hutsezko harremanak ezarri, eta horrela ez bada elebidunak errebindikatu.

